

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Otsailaren 21eko 24/2023 Foru Agindua. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko enklabeok sustatutako kultura ekimenak gauzatzeko 2023ko dirulaguntza deialdiari**

Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuak ezartzen duenez, Kultura Zuzendaritzaren eginkizunak dira kultura beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, arteak nahiz kultura ekimenak bultzatu, finkatu eta garatzeko, bai eta kultura ekintza eta kulturaren zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere.

Eskumen horiek baliatuta, Kultura Zuzendaritzak esparru egokia garatu du Arabako kultura sektorea sustatu, piztu eta babesteko, dirulaguntzen urteko deialdiak onetsiz.

Horiek horrela, dirulaguntza eman nahi du Arabako Lurralde Historikoko udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko enklabeok sustatutako kultura ekimenak gauzatzeko 2023an.

Horretarako, nahitaezkoa da kultura ekimenek bete beharreko araudi esparrua zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko enklabeok sustatutako kultura ekimenak gauzatzeko 2023ko dirulaguntza deialdia, xedapen honen eranskinean ageri dena.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.), zeina martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu baitzuen, eta ebazpen honen eranskinean xedatutakoak.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuko 70105. G/334700/46290704 "Udalen eta kuadrillen kultura ekimenak" partidaren kontura ordainduko dira, eta honako gehieneko zenbatekoak ezarri dira:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500,00 eurokoa edo gutxiagokoa duten kultura proiektuak. Diru zuzkidura: 25.000,00 euro.

- 2 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500,00 euro baino gehiagokoa eta 20.000,00 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak. Diru zuzkidura: 55.000,00 euro.

Oinarri orokor arautzaileen 7.1 apartatua betez (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua), funtsak bi modalitateen artean banatu ahal izango dira, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Laugarrena. Ebazpenak sei hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori igaro eta eskaerari buruzko esanbidezko ebazpenik eman ez bada, ulertuko da eskaerari ezezkoa eman zaiola, nahiz eta geroago ebazpena eman ahal izango den.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikulua xedatutako moduetan.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 21a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
ANA M. DEL VAL SANCHO

*Kultura Zuzendaria*  
INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

## Eranskina

### Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak udalek eta kuadrillek sustatutako kultura ekimenak garatzeko dirulaguntzen deialdia, 2023. Urtea

#### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak udalei eta kuadrillei, 2023ko ekitaldian kultura ekimenak gauza ditzaten.

Deialdia bat dator Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) xedatutakoarekin. Dekretu hori Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zenbakia).

Bi dirulaguntza modalitate ezartzen dira:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500,00 eurokoa edo gutxiagokoa duten kultura proiektuak.
- 2 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500,00 euro baino gehiagokoa eta 20.000,00 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak.

Erakunde eskatzaileek proiektu bakarra aurkeztu dezakete, eta bi modalitateetako bat aukeratu behar dute aurkezteko.

#### 2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak ezarritako balioespen irizpideen arabera alderatuko dira, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

### 3. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Deialdiaren zenbatekoa, guztira, 80.000,00 euro da. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko partida honi egotziko zaio: 70105. G/334700/46290704 "Udalen eta kuadrillen kultura ekimenak".

2. Honela banantzen da deialdiaren zenbatekoa:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500,00 eurokoa edo gutxiagokoa duten kultura proiektuak. Diru zuzkidura: 25.000,00 euro.

- 2 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500 euro baino gehiagokoa eta 20.000,00 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak. Diru zuzkidura: 55.000,00 euro.

Oinarri orokor arautzaileen 7.1 apartatua betez (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua), funtsak bi modalitateen artean banatu ahal izango dira, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

3. Diruz lagun daitekeen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 60 ere, eta erakunde eskatzaileak gainerako ehuneko 40a daukala ziurtatu beharko du. 2 modalitatean, horrez gainera, erakunde bakoitzeko 7.000,00 euroko dirulaguntza muga ezartzen da.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 500,00 eurotara heltzen ez diren eskaerek.

### 4. artikulua. Erakunde onuradunak

- Erakunde onuradunak:

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko udalak eta kuadrillak, Vitoria-Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

- Kanpoan geratzen diren erakundeak:

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotako egoeretan dauden erakundeak, baita Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako 4/2005 Legearen indarreko testuan jasotako kasuetan zigtortuak izan direnak ere.

### 5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programa eta gastuak

Kultura sustatzeko programa irekiak lagundu ahal izango dira diruz, edozein alderditan.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gainditu ez eta 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 10era bitartean egiten direnak.

2. Diruz lagundu ezin diren gastuak:

Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko honako hauek:

- Erakundearen mantentze, kudeaketa eta funtzionamendu gastu orokorrak.

- Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

- Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.
- Edozein argitalpenen edizio gastuak, berdin diolarik zein euskarritan eginak diren (papera, CDa, weba eta abar), ezta ondoren egiten den ustiapena ere.
- Ordezkaritza, protokolo eta opari gastuak eta antzekoak.
- Berbenek eta ospakizunekin, Eguberriko festekin, erromeriekin eta herriko jaiekin lotutako gainerako ekitaldiek sortutako gastuak, Arabako tradizioko herri partaidetzako kultura ekintzak izan ezik.
- Aisialdiko edota entretenimenduko jarduerak, jolas eta jai jarduerak eta kirol jarduerak eragindako gastuak, bai eta berriaz kulturalak ez diren jarduerak sortutakoak ere.
- Soldatapeko langile gastuak.
- Bidaia, egonaldi eta publizitate gastuak.

#### **6. artikulua. Eskabideak aurkeztea**

1. Betetzeko eskuragarri dagoen eredu espezifikoari egokitu beharko zaizkio eskabideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunak, pertsona juridikoak direnez, beharturik daude egoitza elektronikoa dagoen izapide espezifikoaren bidez telematikoki aurkeztera (<https://web.araba.eus/eu/web/egoitza/-/convocatoria-de-subvenciones-para-desarrollar-iniciativas-culturales-promovidas-por-ayuntamientos-y-cuadrillas>).

2. Eskabidea hainbat erakundek batera aurkezten badute, taldeko erakunde bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta erakunde guztiak hartuko dira onuraduntzat. Era berean, pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da taldearen ordezkari edo ahalduz bakar, onuraduna den aldetik taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoekin, eta hura arduratuko da eskaera izapidetzearen ondoriozko gainerako jarduketetz.

#### **7. artikulua. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko hamabost (15) egun baliouduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Kultura programaren proiektua, balioespen irizpideak osatzen dituzten alderdi guztiak jasotzen dituena (oinarri hauetako bederatzigarren artikulua).

2. Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.

Ezinbestekoa izango da eskabideari erantsita proiektua eta aurrekontua aurkeztea oinarri hauetan ezarritako epean eta moduan. Ez badira proiektua eta aurrekontua aurkezten eskabidearekin batera, ez da izapidea onartuko.

3. Administrazio agiriak:

- Egiatzagiri bat, erakundearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakiarena, zeina eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hartua izan beharko baita.

Hainbat udalek edo kuadrillak batera aurkeztutako eskaerei dagokienez, programan parte hartzen duten udal guzti-guztiek erantsi behar dute egiaztagiri hori.

- Era berean, eskaera udal talde batek aurkezten badu, taldearen ordezkari diharduen pertsonari edo erakundeari emandako ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- Hala badagokio, inplikaturako eragileek programa gauzaten parte hartzen dutela egiaztatzen duen gutuna edo adierazpena.

Kultura Ekintza Zerbitzuak egokitzen jotzen duen behar beste agiri eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskabidea behar bezala balioetsi eta ebazteko.

Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren administrazio agiritan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie erakunde interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin.

### 9. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako proiektuak balioesteko, honako irizpide eta baremo hauek hartuko dira kontuan:

1. Programak Arabako kultura eskaintzari egiten dion ekarpena. 25 puntu, gehienez.

Arabako kultura eskaintzaren testuinguruan, proiektua gauzateak zer dakarren baloratuko da, kalitatearen, kultura eraginaren eta gizarte eraginaren parametroetan, honako banaketa honen arabera:

1. Proiektuaren kalitate kulturala. 15 puntu, gehienez.

2. Diziplina anitzeko programak. 4 puntu, gehienez.

3. Kultura eragina, gauzaten den herrian bertan eta kanpoan. 3 puntu, gehienez.

4. Gizarte eragina: proiektuaren onuradunak, norentzat den. 3 puntu, gehienez.

2. Programaren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna eta udal-errian edo kuadrillan antzeko programarik ez egotea, baita aurreko edizioetako programarekiko berrikuntzak ere. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

IZAERA BERRITZAILEA	HAZTAPENA
Handia	5 puntu
Ertaina	3 puntu
Ez-esanguratsua	0 puntu

3. Kultura proposamenaren ibilbidea eta sendotzea denboran. Irizpide honek laguntzaren xede diren jardueren edizio kopurua balioetsiko du. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

EDIZIO KOPURUA	HAZTAPENA
10 edizio baino gehiago	5 puntu
4-10 edizio	3 puntu
3 edizio	1 puntu

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 15 puntu, honela banatuta:

a. Proiektuaren oinarriak. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherente eta argia. 4 puntu, gehienez.

b. Jardueren metodologia eta plangintza, gauzate egutegia barne. 5 puntu, gehienez.

c. Jarraipena eta ebaluazioa. 4 puntu, gehienez.

d. Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak esplizituki zehaztea. Puntu 1, gehienez.

e. Programaren komunikazioa eta zabalkundea. Puntu 1, gehienez.

5. Proposamenaren finantzaketa eta bideragarritasuna. Proposamenak finantzaketa propioko maila ona izatea baloratuko da; izan ere, horrela, bideragarritasun ekonomikoa handiagoa izango da, eta ez da dirulaguntzaren hain mende egongo gauzatu ahal izateko.

Beraz, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osotik eskatutako ehunekoa zenbat eta txikiagoa izan orduan eta handiagoa izango da atal honetako puntuazioa. Gehienez 5 puntu (balio hamartarrak hurbileneko balio osora biribilduko dira edota erakunde eskatzailearentzako komenigarrienera), honela banatuta:

DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUTIK ESKATUTAKO EHUNEKOA	HAZTAPENA
35etik beherakoa	5 puntu
35-45 artean	3 puntu
46-55 artean	1 puntu
55 baino gehiago	0 puntu

Finantzaketa eta bideragarritasun maila kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

$(\text{Diruz lagun daitekeen eskatutako aurrekontua} / \text{Diruz lagun daitekeen aurrekontua guztira}) \times 100$

6. Programa udalerrri batek baino gehiagok batera edo kuadrilla batek sustatzea. Bi kasutan, udalerrri batean baino gehiagotan egin behar dira jarduerak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

- 3 udalerrri baino gehiagok edo kuadrilla batek sustatuak. 5 puntu.
- Hiru udalerrrik sustatuak. 3 puntu.
- Bi udalerrrik sustatuak. 2 puntu.

7. Tokiko elkarteek programan parte hartzea, bai diseinatzen, bai kudeatzen, bai gauzatzen. 7 puntu, gehienez.

- Hiru elkarte edo gehiago. 7 puntu.
- Bi elkarte. 5 puntu.
- Elkarte bat. 2 puntu.

Irizpide hau balioetsiko da inplikaturako eragileek programa gauzatzen parte hartzen dutela egiaztatzen duen gutuna edo adierazpena aurkezten bada, bestela ez.

8. Programa biztanle gutxi dituzten edo biztanleak sakabanatuta dauden udalerrietan gauzatzea. 13 puntu, gehienez.

- 1.000 biztanletik beherako udalerrriak: 13 puntu.
- 1.000 eta 3.000 biztanle arteko udalerrriak, baldin eta hamar biztanlegune edo gehiago badituzte: 10 puntu.

Atal honetan puntuazioa lortzeko, programaren ehuneko 50, gutxienez, udalerrri horietako batean gauzatu beharko da.

Deialdi honen ondorioetarako, eta soilik horretarako, biztanle gutxi edota biztanleak sakabana natuta dituzten udalerriak izango dira 1.000 biztanletik behera dituztenak edo 1.000 eta 3.000 biztanle artekoak, baldin eta 10 biztanlegunez edo gehiagoz osatuta badaude. INEren 2022eko urtarrilaren 1eko biztanleria unitatearen errolda jarraituaren biztanleriari buruzko datuen arabera, hauek dira:

KUADRILLA	UDALERRIA	BIZTANLEGUNEAK	BIZTANLEAK, GUZTIRA
AÑANA	Añana	2	156
	Armiñon	3	235
	Berantevilla	8	452
	Erriberagoitia	25	820
	Kuartango	20	421
	Lantaron	12	931
	Gaubea	30	1097
	Zambrana	4	425
ARABAKO LAUTADA	Asparrena	10	1637
	Barrundia	14	914
	Burgelu	6	629
	Iruraiz-Gauna	11	537
	Donemiliaga	15	718
	Zalduondo	1	195
AIARA	Aiara	24	2.921
TREBIÑUKO ENKLABEA	Argantzón	2	526
	Trebiñu	47	1.428
GORBEIALDEA	Arratzua-Ubarrundia	11	1.031
	Urkabustaiz	10	1.408
	Zigoitia	18	1.822
	Zuia	13	2.330
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Mañueta	1	296
	Eltziego	1	971
	Bilar	1	316
	Kripan	1	176
	Lantziego	3	724
	Lapuebla de Labarca	1	870
	Leza	1	217
	Moreda Araba	1	216
	Navaridas	1	200
	Samaniego	1	311
	Eskuernaga	1	291
	Iekora	1	247
	ARABAKO MENDIALDEA	Arraia-Maetzu	18
Bernedo		13	560
Harana		4	226
Lagran		3	175
Urizarra		6	310

9. Euskara erabiltzea programa gauzatzean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- Programan euskararen erabilera sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea. 3 puntu, gehienez.
  - Euskara erabiltzea programa gauzatzean. 2 puntu, gehienez.
10. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- Programan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea. 3 puntu, gehienez.
  - Programa gauzatzeko emakumeak kontratatzea eta emakumeek profesionalki parte hartzea. 2 puntu, gehienez.
11. Programan tolerantzia, gizareratzea eta kultura aniztasuna sustatzen dituzten helburuak eta ekintzak sartzea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- Pertsona eta talderik kalteberenei arreta berezia ematen dieten programak, pertsona eta talde horiei jardueretan sartzeko eta parte hartzeko aukera ematen dieten ekintza espezifikoek bidez. 3 puntu, gehienez.
  - Tolerantzia, gizareratzea eta kultura aniztasuna nabarmentzen dituzten mezuak zabaltzen dituzten programak. 2 puntu, gehienez.
12. Ingurumen irizpideak. 5 puntu, gehienez.
- Ingurumen hezkuntza sustatzearekin lotutako ekintza espezifikoak. 5 puntu, gehienez.
- Dirulaguntza emateko proposamenean, gutxienez 50 puntuko balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik sartuko dira.
- Lortutako irizpideen puntuen baturak guztirako puntu kopuru unitarioa emango du eta, ondoren deskribatzen den eskalara eramanda, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako aurrekontuaren arabera esleitu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa adieraziko du.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
0-49	0
50-59	30
60-75	40
76-90	50
91-100	60

Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

#### 10. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpena

- Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.
- Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde hori eratzean, kontuan hartu beharko da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 3.7 artikuluan ezarritakoa. Honako kide hauek izango ditu:
  - Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
  - Bokalak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.
  - Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko pertsona bat, hitza izango duena, baina botorik ez.



3. Balioespen batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

6. Esleipen ebazpenean dirulaguntza zein erakunde eskatzaileari eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri banan-banan emango zaie erakunde eskatzaileei, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan arautzen duenarekin.

#### **11. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak**

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak onartu beharko dituzte, bai eta finantza kontrolak edota kontu hartzailetzak egin beharrekoak ere eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotakoak.

c) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki jotzen diren argibide eta agiri guztiak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari.

d) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla eta ezarritako gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.

e) Laguntza ematea eta baliatzea eragin duten betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera egin dutela justifikatu beharko dute.

f) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

g) Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, diruz lagundutako programa edo jarduera dela eta argitaratzen dituzten programen aleetan, iragarki karteletan, argazkietan eta gainerako material grafikoan, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

h) Dirulaguntzaren erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu beharko du agiri guztietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko testuan jasotakoa betetzeko. Lege horren babesean, argitaratzen diren irudietan pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera, ez dira sexu objektu soil gisa agertuko eta ez da erabiliko estereotipo matxistarik eta genero rol eta identitateen dibertsifikazio sexuala bultzatuko da.

#### **12. artikulua. Eskabideak birformulatzea**

1. Dirulaguntzaren xedea erakunde eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, erakunde onuradunari bere eskabidea birformulatze eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Eskabideak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerak balioesteko ezarritako irizpideak ere.

### 13. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak helburu bererako emandako beste batzuekin; aldiz, bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek, Estatuak, Europar Batasunak edo nazioarteko beste erakunde batzuek edo Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa gainditzen ez badute. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzailari Estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batzuek edo entitate edo erakunde pribatu batzuek helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eman dioten edo erakunde onuradunak halakorik eskuratzeko eskaerarik egin duen. Jakinarazpen horrekin batera, laguntza eman edo ukatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, ezingo du inola ere gainditu sortutako gastuen kostua.

### 14. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuta, justifikatu ondoren.

2. Oro har, diruz lagundutako programa amaitu ondoren, justifikazio agiriak aurkeztu eta dirulaguntza kobratzeko eskatu ahal izango da, justifikazioa aurkezteko gehieneko epea amaitu arte itxaron behar izan gabe. Hori izango da modu operatibo egokia dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko.

Aurrekoa gorabehera, gehieneko bi epe ezartzen dira frogagiriak aurkezteko:

a. 2023ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura programa guztien frogagiriak 2023ko urriaren 13rako aurkeztu beharko dira, beranduenez.

b. 2023ko azken hiruhilekoan amaitzen diren kultura programen frogagiriak 2023ko abenduaren 15erako aurkeztu beharko dira, beranduenez.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 2024ko martxoaren 1erako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

3. Dirulaguntzen justifikazioa honako hauen arabera egin behar da: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Araudia onesten duena (aurrerantzean, Dirulaguntzen Araudi Orokorra), eta Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 11. artikulua (dekretu horrek Kultura eta Kirol Sailak lehia-keta bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen).

Dirulaguntzen Araudi Orokorren 75. artikuluan eta 50/2019 Foru Dekretuaren 11.3 artikuluan araututako justifikazio erraztutzat hartuko da justifikazioa.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

a. Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena; gauzatutako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazi behar dira.

Ezarritako helburuen lorpen maila adierazi behar da bereziki. Gainera, sistematikoki sartu beharko da sexuaren aldagaia txostenean emandako informazioan. Horretarako, datuak bereizita eman behar dira, emakume eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusi ahal izateko. Eta, ahal den neurrian, datu horiek azaldu behar dira, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko testuaren 16. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua arautzen duten moduan.

b. Jardueraren gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, honako hauek adierazten dituen: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, izandako desbideratzeak adierazi beharko dira.

Jatorrizko fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta bana-bana edo batera, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000,00 eurotik gorakoak badira (BEZik gabe). Horrez gain, aipatutako fakturen ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoaren zenbateko baliokidea justifikatu beharko da. Aurrekontu osoa justifikatzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da, gauzatutako gastu txikiagoaren proportzioan.

5. Eskaeran puntuatutako balioespen irizpideak partez edo osorik ez betetzeak berekin ekar lezake lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu behar izatea, eta, ondorioz, dirulaguntza minoratu behar izatea.

6. Dirulaguntzak justifikatzean faktura elektronikoa erabili ahal izango dira gastuak justifikatzeko, bat etorriaz Baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin.

Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da faktura elektronikoen formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, konfiantzako zerbitzu elektronikoa eskaintzen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzako zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

7. Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, jatorrizko frogagirien gordailuari buruzkoa, non adierazi beharko baita emandako laguntza justifikatzeko elektronikoki aurkeztutako dokumentuak (gastu eta ordainketa frogagiriak) guztiz bat datozela jatorrizkoekin eta jatorrizko agiri horiek erakundearen legezko egoitzan daudela. Adierazpen hori erakundearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

Instrukzio organoak, laginketa tekniken bidez, egokitzen jotzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatzen dituen gastuen eta ordainketen jatorrizko egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

## **15. artikulua. Laguntza itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa**

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzen Araudi Orokorrean ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntza dela eta jasotako diru zenbatekoak itzuli behar izatekotan, zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluaren arabera kobratuko dira.

#### **16. artikulua. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) eta KulturAraba web gunean ([www.kulturaraba.eus](http://www.kulturaraba.eus)) jarriko da ikusgai.

#### **17. artikulua. Azken klausula**

Erabaki honetan ezarritako prozedura honako hauek ezarritakoari lotzen zaie: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuena; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenak, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, bai eta araudi aplikagarriak xedatzen duen guztiari ere.